

## AUTOBUS ZERBITZUAREN ALDAKETEI BURUZKO AGENDA 21EN HERRITARREN FOROAREN BILERA

<b>Bilera antolatu duen organoa:</b>	Hondarribiko Udala
<b>Deialdia egin duena:</b>	Hondarribiko Udaleko Ingurumena eta Agenda 21 departamentua
<b>Data, tokia eta ordua:</b>	2012ko ekainak 7 Hondarribiko Udaleko Udalbatza Aretoa 19:00
<b>Harremanetarako pertsonak:</b>	Ingurumena eta Agenda 21 departamentua: - Naroa Susperregi Idazkaritza Teknikoa (Izadi 21): - Edurne Simón
<b>Telefonoak:</b>	943 111 242 (Naroa Susperregi) 943 492 215 (Izadi 21)
<b>Helbide elektronikoa</b>	<a href="mailto:ingurumena@hondarribia.org">ingurumena@hondarribia.org</a> (Naroa Susperregi) <a href="mailto:info@izadi21.net">info@izadi21.net</a> (Izadi 21)
<b>Gai-zerrenda:</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ongi etorria eta bileraren helburuaren azalpena</li> <li>2. Autobusaren aldaketa nagusien berri ematea</li> <li>3. Bertaratutakoen ekarpenak entzuteko tartea</li> </ol>

### **BERTARATUTAKOEN ZERRENDA:**

- Iñaki de la Fuente (Amute Kosta auzo elkartea)
- Miguel Lerchundi (Amute Kosta auzo elkartea)
- Gloria Nieto (Amute Kosta auzo elkartea)
- Puri Varela
- Edurne Prieto
- Belén Martínez (ACUBI)
- Begoña Gojenola
- Estela Galan
- Iñaki Sanz
- Joseba Garaialde
- Joxemari Goyogama
- Itziar Irizar
- Antton Garmendia
- Lupe Urtizberea
- Juan Ortiz Armendariz
- Idoia Salazar Telletxea
- Ibai Labaien Zapirain (zinegotzia)
- Kattalin Noblia (zinegotzia)

### **HIZLARIAK:**

- Aintzane Lauzirika (Gipuzkoako Foru Aldundia)
- Mikel Urretabizkaia (Ekialdebus)
- Naroa Susperregi (Hondarribiko Udala)

### **GOBERNU BATZORDEKO ORDEZKARIAK:**

- Amaya Gezala
- Lupe Olaskoaga

## **1. Ongi etorria eta bileraren helburuaren aurkezpena**

Lupe Olaskoagak azaldu du Agenda 21en Herritarren Foroaren gaurko bileraren helburua ekainaren 18tik aurrera abiaraziko diren Ekialdebuseko bus zerbitzuei buruzko informazioa ematea dela. Horrekin batera, barkamena eskatu die bertaratutakoei Hondarribiko Udalaren izenean, 2012ko martxoaren 1ean martxan jarri ziren garraio publiko honi buruzko zerbitzuen inguruko bilera lehenago ez antolatzeagatik. Ondoren, gaurko bileran azalpena emango dituzten hizlariak aurkeztu ditu:

- Aintzane Lauzirika (Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuna eta Bide Azpiegituren Departamentuko teknikaria)
- Mikel Urretabizkaia (Ekialdebus, S.L. enpresako arduraduna)
- Naroa Susperregi (Hondarribiko Udaleko ingurumena eta Agenda 21en teknikaria)

## **2. Autobusaren aldaketa nagusien berri ematea**

Lehenik eta behin, Naroa Susperregik gogorarazi du Agenda 21en Herritarren Foroa 2008ko irailean sortu zela eta garai hartan izan zuen lehen egitekoa udalerriko garapen iraunkorraren aldeko I. Ekintza Plana diseinatzen laguntzea izan zela (ekintza zehatzak proposatuz, ekintzen lehentasun maila ezarri, etab.). 2009ko martxoan aipatu dokumentua udalbatza bidez onartu ondoren, Herritarren Foroa urtero, sasoi ezberdinetan, biltzen joan da, Ekintza Planarekin zerikusia duten ekintza edo proiektu zehatzei buruz eztabaidatzeko.

Gaurko bilerari dagokionez, Lupe Olaskoagak aipatu duen moduan, helburua herritarrei martxoaren 1ean ezarri ziren autobusari buruzko aldaketa berrien inguruko informazio nagusia laburbiltzea da eta baita ekainaren 18tik aurrera egingo diren aldaketa edo froga pilotuen berri ematea ere. Naroak aipatu bezala, Agenda 21en I. Ekintza Planaren 5. lerro estrategikoak harreman zuzena du gaur landuko den gaiarekin: "Biztanleriaren mugikortasun eta irisgarritasun beharrak iraunkortasun irizpideak aintzat hartuz asetzea". Ildo honetan, Hondarribiko Udalak 2009ko martxotik hona mugikortasun iraunkorarekin harreman zuzena duten jarduera ezberdinak gauzatu ditu eta horietako batek zerikusia du garraio publikoaren hobekuntzarekin.

Autobusaren eskaintzari dagokinez, lehen aipatu den moduan, zerbitzuari buruzko lehen aldaketak 2011ko martxoan gauzatu ziren eta ordutik hona aldaketa gehiago

ere egin izan dira, Naroaren esanetan, erabiltzaileek egindako ohar, kexa eta iradokizunei erantzun bat eman asmoz. Ondoren, bus linea bakoitzaren aldaketak zeintzuk diren azaldu die bertaratutakoei:

- E-20 (Hondarribia-Donostia): ordutegiak aldatu egin dira. Era berean, orain Hondarribiko irteerak Ama Guadalupeko geltokitik dira (eta 10 eta 20 gutxietan ateratzen da busa Hondarribiko geltokitik eta Donostiko geltokitik eta 5 eta 5 gutxietan). Berrikuntza bezala, autobusa aireportuaren kanpoan gelditu beharrean, terminalera sartuko da, bertan egokitu duten bus-erreia baliatuz.
- E-27 (Hondarribia-Donostia, larunbat, igande eta jaiegunetarako) eta E-77 (gauekoa: Hondarribia-Irun-Errenteria-Pasai Antxo-Donostia): aurreko linearen osagarriak dira eta horietan ez da aldaketatik gertatu.
- E-21 (Hondarribia-Aireportua-Donostia –autopistatik-): linea honen ordutegiak bere horretan mantendu dira eta berrikuntza moduan, Donostitik Hondarribirako norantzan, autobusa aireportuko terminalera sartuko da (orain han izango duelako geltokia).
- E-22 (Hondarribia-Txingudiko Merkatal Gunea): linea hau Bidasoako Ospitalera doana da eta 16 irteera izango ditu Hondarribitik (lehen, aldiz, 14 ziren), orduro. Irteerak, Hondarribitik, goizeko 7:35etan hasiz, 25 gutxietan izango dira (azken autobusa 22:35etan irtengo da Hondarribitik), salbuespen batekin; arratsaldeko 6etako zerbitzua 18:40etan irtengo da Hondarribitik). Bueltako norantzan, puntuan izango dira irteerak Txingudiko merkatal gunetik eguneko zenbait ordu zehatzetan eta bestela, eta laurdenetan. Udalak zerbitzu honen erabiltzaileei buruz eskuartean dituen datuen arabera, ospitalera daraman zerbitzu honek oso erabiltzaile gutxi ditu baina hala ere, Udala zein Foru Aldundia zerbitzu hori mantentzearen aldekoak dira.
- E-28 (Hondarribia – Irun – Ibaeta - Donostiako erdialdea- Donostiako Amara auzoa): berrikuntza moduan, aireportuaren terminalera sartuko da autobusa, bertan geltokia baitu orain. Bestalde, E-23 lineak E-28aren zerbitzu osagarria suposatzen du eta Irun Hondarribiarekin lotzeko ere balio du. Era berean, E-23 linea E-20aren osagarria da.

Naroaren azalpenen ostean, Mikel Urretabizkaiak hartu du hitza eta E-25 (Hondarribia-Irun-Kosta-Aireportua) linearen aldaketei dagozkien azalpenak eman ditu:

- Lehen linea honek 10 minutuko maiztasuna zuen eta erabiltzaile kopurua nahiko txikia zen. Gaur egun, autobusaren zerbitzu honek 15 minutuko maiztasuna du. Mikelek aipatutakoaren arabera, Irungo Udalak eskatun zuen zerbitzua Irunen Palmera-Monteroraino ez iristeko eta horren ordez, Larreaundiko biribilgunera heltzeko. Horri lotuta, Ekialdebus enpresak bere txosten teknikoa prestatu zuen, eta bertan, besteak beste, aldaketa horrek erabiltzaile kopuru handi baten galera ekarriko zuela iragarri zuen. Irungo Udalak proposatutako aldaketa martxan jarri ondoren, Ekialdebus enpresak egindako aurreikuspena bete egin zen, Hondarribia eta Irun lotzen dituen zerbitzu honek erabiltzaile asko galdu baititu.

- Aurreko aldaketari lotuta, eragindako erakundeek (Gipuzkoako Foru Aldundia herri-arteko garraio publikoaren eskumena duen erakunde gisa eta Ekialdebus autobus zerbitzuak kudeatzen dituen enpresa moduan) egoera berri horri aurre egiteko irtenbide ezberdinak aztertu zituzten eta E-25 linea 2tan banatzeko proposamena landu zuten. Horri lotuta, datorren astean aldaketa berri horren emaitzak baloratzen eta dagokion erabakia hartzen lagunduko duen froga pilotua abiaraziko dutela gaineratu du Mikelek. Beraz, proposamen hau onartuko balitz, E-25 linea (Hondarribia – Irun Larreaundi), Larreaunditik irten eta Lurgoriraino iritsiko litzateke (Irungo erdigunetik igaroaz). Eta E-29 linea (Hondarribia – Irun Fermin Calbeton) Monterotik irten eta Foru kalera (Arroka) helduko da. Beraz, E-25 linea aireportutik igaroaz, Lurgoriraino iritsiko da, eta E-29 linea, berriz, Kostatik pasa ondoren, Donostia Kalea eta Baserritar etorbidetik igaroko da, Foru Kaleraino (Arroka).

### 3. Bertaratutakoen ekarpenak entzuteko tartea

Jarraian laburbiltzen dira bilerara joan ziren herritarrek egindako ekarpenak:

- E-25 linea 2 ibilbidetan banatzea desegokia da, herriko zenbait auzori zerbitzua soilik norantza batean ematen zaielako eta ondorioz, zerbitzu batetik besterako itzaroteko aldia luzeegia izatera iristen delako. Honi dagokionez, Ekialdebus enpresako ordezkariak azaldu du bultzatu nahi izan dena dela autobus lineak auzo ezberdinetatik igarotzea eta horrela ahalik eta udalerriko eremu edo zonalde zabalenera iristea (horrela, ahal den herritar gehienei zerbitzua emateko). Kontrako kasuan, hondarribiarren zati bat autobusaren zerbitzurik gabe geratuko litzateke.
- Aurrekoaren ildotik, aipatu linea bitan banatu beharrean, Irunen egin daitekeen aldaketa bat proposatu du ACUBI elkarteko ordezkariak: autobusa Irunera iritsitakoan, Colon ibilbidetik Larreaundira helduko litzateke eta gero, Eguzkitza karrikatik jarraituko luke, Urdanibia plazara iritsi eta bertatik San Martzial karrika hartuz, berriro ere Colon pasealekura bueltatuz. Proposatutako aldaketa horrekin, berriro ere autobusa Irungo erdigunetik igaroko litzateke (San Juan Harria plaza eta inguruko eremua).
- Aintzane Lauzirikak adierazi du E-25 eta E-29 linea berriak datorren astean frogatuko direla eta lortutako emaitzen arabera (erabiltzaile kopurua, gertatutako gorabeherak, ...), E-25 autobus zerbitzuaren banaketa horrekin aurrera jarraitzea edo ez baloratuko dutela.
- ACUBIko ordezkariaren esanetan, Irungo Mugikortasun Mahaian autobusa San Juan Harria plazatik igarotzea proposatu dute Irungo hainbat elkartek, plazatik gero Larreaundira iristeko. Irungo Udalak, aldiz, ez du oraingoz proposamen hori ontzat jo.
- Herritarretako batek aipatu du, lan kontuengatik, egunero Irunera joaten dela autobusa erabiliz eta gero eta gehiago kostatzen zaiola bere lantokira heltzera. Ildo honetan, komentatu du jada 3 urte daramatzala Hondarribian bizitzen eta 3 urte hauetan autobus zerbitzuen eskaintzari lotuta aldaketa gehiegi egon direla. Horrela jarraituz gero, erabiltzaileetan nahasmendua besterik eragiten ez dela gaineratu du (bere esanetan, egunero herritarren batek zerbitzuari buruzko zalantzak

planteatzen dizkio autobusaren gidariari). Orain artekoa aintzat hartuz, erakundeei eskatu die garraio publikoari buruzko edozein aldaketa martxan jarri aurretik, aldaketen eraginak ondo aztertu beharko lituzketela (koordinazio eta planifikazio falta dagoela salatu du) eta horrekin batera, aldez aurretik modu egokian informatu beharko liratekeela herritarrek. Bestela, erabiltzaileen galera hazi egingo dela aipatu du. Azkenik, erakundeei proposatu die egiten diren aldaketen informazioa busaren pantailan eta Ekialdebus enpresaren web gunean barneratzeaz gain, paperean ere jaso eta erabiltzaileei banatzeko (izan ere, herritarren zati batek ez du interneterako sarbidea). Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Ekialdebus enpresako arduradunek herritarrek arrazoi duela onartu dute eta proposamena aintzat hartuko dutela adierazi dute.

- E-25 linearekin jarraituz, herritar batek galdetu du ea aireportuko geltokiaren erabiltzaile kopurua zein den. Era berean, bere ustez ez litzateke aireportuko geltokia mantendu beharko (ezabatzearen aldekoa da), N-638 errepidetik gertu dauden etxeetan bizi den biztanle kopurua txikia delako Kosta auzoko biztanle kopuruarekin alderatuz. Hortaz, bere esanetan egokiena bai norantza batean nahiz bestean, autobusak zerbitzua eman beharko lioke Kosta auzoari (Irundik Hondarribirako zerbitzua aireportutik igarotzen da eta Hondarribitik Irunerako autobusa Kostatik sartzen da).
- Beste herritar batek salatu du gaur egun Amute-Kostan dagoen garraio publikoaren zerbitzua, batez ere adineko jendearentzat, oso eskasa gertatzen dela. Auzo horretako biztanleek gertuen duten geltokian autobusa galduz gero, denbora gehiegi itxaron behar izaten dute geltokian hurrengo zerbitzua iristen denerarte (ordu erdi bat) edo bestela, hurrengo zerbitzua noiz iritsiko zain egon nahi ez dutenek, errepedea zeharkatu behar dute (ibilbide luzeegia egin behar izaten dute oinez beste norantzan dagoen geltokira iristeko).
- Amute Kosta auzo elkarteko ordezkariak 2011ko martxotik hona izan diren autobusaren aldaketei lotutako hainbat kexa plazaratu ditu. Kexetako batek zerikusia du 2011ko uztailean Hondarribiko udaletxean sarrera eman zioten gutun batekin: 2011 uztailean Udalarri zuzendutako gutuna aurkeztu zutenetik ez dute inongo erantzunik jaso. Horrekin batera, E-25 lineari lotuta banatu zen triptikoa ulertezina dela komentatu du (kexa horri lotuta, bilerara etorritako beste herritar batek arrazoi duela aipatu du). Aldi berean, auzo elkarte bezala gai honi buruzko informazio nahikorik erraztu ez zaiela gaineratu du. Azken honi lotuta, udal ordezkariari eskatu die auzora hurbildu eta bilera informatibo bat antolatzeke, auzoko bizilagunei informazioa behar den moduan emateko. Bukatzeko, azken urtean Amute Kostako garraio publikoko zerbitzua progresiboki murrizten ari dela adierazi du; 5 zerbitzu zeuden hasiera batean, gero 2ra jaitzi ziren, ... eta zerbitzurik gabe geratuko ez ote diren susmoa dute. Azken aipamen honi lotuta, Mikel Urretabizkaiak erantzun dio berari inongo erakundek ez diola agindu Amute Kostako zerbitzua ezabatzeko.
- Mikel Urretabizkaiak komentatu du 2011ko martxoaz geroztik E-25 linearen aldaketak martxan jartzearekin batera, enpresan nahiz Foru Aldundian Alde Zaharreko, Puntaleko zein Lurgorriko herritar askoren kexak jaso zituztela. Kexak, batez ere, data horretatik aurrera autobusa auzo hauetatik igarotzen ez zelako egin zituzten bertako bizilagunek. Beraz, arazo horri irtenbidea eman asmoz, bus linea horri dagozkion aldaketa berriak abiarazi zituzten. Izan ere, erakundeek zentzu edo eduki

bereko kexa ugari jasotzen dituztenean horiei erantzuten saiatzen baitira, une horretatik aurrera nola jardun erabakitzeko. Horrekin batera, Ekialdebus enpresako ordezkariak esan du beraiek edozein eratako aldaketa martxan jarri aurretik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren oniritzia jaso behar dutela.

- Amute Kostako ordezkariak aipatu duen gutunari dagokionez, Amaya Gezalak aipatu du berak behintzat auzo elkarte horretatik jaso duen, gai honi buruzko lehen gutun ofiziala duela 2 aste eman ziotela.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariak komentatu du Aldundiak herriarteko autobusari buruzko eskumena izan arren, edozein erabaki hartu aurretik, beti, lehenago, eragindako herrietako udal ordezkariekin biltzen direla, ahal den guztietan adostasun batera iristeko.
- Herritar batek aipatu du, autobusaren eskaintza planifikatzean, berau sinplifikatzera jo behar luke erakundeek (herritarrei zuzendutako informazioaren ulergarritasuna, ibilbideak, etab. bezalako alderdietan), bestela, herritarrengan nahasmendua besterik sortzen ez dela.
- Udalari proposatu zaio markesinetan dauden pegatina berriak jarri aurretik, letra eta zenbakien tamaina handitzeko, herritar guztiek irakurtzeko zailtasunik izan ez dezaten.
- Bilerara bertaratutako herritar batek salatu du behin baino gehiagotan gertatu zaiola autobus geltokian zerbitzuari itxaroten egon eta autobusak geltokian ez gelditu izana. Horren arrazoia autobuseko gidariak ezarritako zerbitzuari lotutako ordutegiarekin betetzea dela gaineratu du (hau da, linearen bukaerara garaiz iristeko, arrazoiren batengatik, garaiz ez iristeko arriskua badago, batzuetan geltokian ez geratzeko agindua jasotzen omen du gidariak, jakinik atzetik beste bat iristear dagoela). Ekialdebusen ordezkariak adierazi dio hori gertatzen (autobusak geltokian geldialdia ez egitea) egin izan dela erabiltzaile multzo handi bati ez kaltetzeko eta edozein kasutan, halako akatsak noizbehinka gertatzen diren arren, 5 minutu ingurura segidan beste autobus bat izaten dela, geltokian itxaroten geratu diren herritarrei zerbitzua emateko.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Ekialdebus enpresako ordezkariak emandako datuen arabera, 2012ko martxoan abian jarri ziren aldaketa berriekin autobusaren 11.000 erabiltzaile galdu dira. Hori dela eta, E-25 eta E-29a bereiztearekin joera hori zuzenduko litzatekeen aztertu behar da (hau da, erabiltzaileen kopuruak gora egiten duenentz).
- Zenbait herritarrek E-25aren zerbitzu guztiak Amute-Kostatik igaro behar liratekeela defendatu dute (bi noranzkoetan auzotik igarotzea), beraien esanetan, Puntalari uneroko ematen baitzaio modu batean edo bestean zerbitzua. Era berean, biztanle gutxien bizi diren gunetan ez litzateke zerbitzua eman behar (izan ere, beraien iritziz, halako kasuetan biztanle gehiago dituzten auzoei kalte egiten baitzaie, norantzeko batean garraio publikoaren zerbitzua eskaini gabe). Gai honi dagokionez, erakundeetako ordezkariak komentatu dute aireportu ondotik igarotzen den zerbitzua bere horretan mantentzearen arrazoietako bat Hondarribiko erdi gunetik urrunen geratzen diren auzo edo eremuei gutxieneko zerbitzu bat eskaintzen zaiela bermatzea da. Horrekin batera, Lurgorrira garaiz iristeko, ezinbestekoa omen da autobusa aireportu ondoko errepidetik ibilbidea egitea (Irundik Hondarribirako noranzkoan Kostatik pasako balitz, autobusak ez luke ordutegia beteko –ez litzateke Lurgorrira garaiz iritsiko eta ondorioz, zerbitzuaren kalitatean eragingo luke-).

- Bileran parte hartu duen herritar baten esanetan, Hondarribiko eskola publikoari (Talaia) zerbitzua ematen zion eskolako autobusaren eskaintza bazegoen, baina krisia dela eta zerbitzu horrek murrizketak izan zituen (hau da, Talaia Eskolako eraikin ezberdinetatik gertu igarotzen zen garraio publikoko zerbitzua bazegoen). Horrekin batera, galdetu du ea neguan eraikin horietatik gertu zerbitzua bermatuta ba ote dagoen. Bere ustez, oso garrantzitsua litzateke puntako orduetan autobusa Biteri eta Bordari eraikinetatik (edo gutxienez gertu) igarotzea, garraio publikoa herri-eskolaren sarrera eta irteera ordu nagusiekin koordinatuz. Horrekin batera, herritar honek beste proposamen bat ere egin du: gaueko bus zerbitzua Kostatik igarotzea, ez diolako zentzurik ikusten autobusa aireportu ondotik igarotzeari.
- Amute Kosta auzoko ordezkariak komentatu du herritarren kexa edo iradokizunei jaramon egiteko, antza erakundeek kontuan hartzen dutena izandako kexa edo iradokizun kopurua dela eta hemendik aurrera, agian hori egin beharko dutela. Izan ere, normalean egiten dutena da auzokide ezberdinen proposamenak, eskaerak, etab. aztertu, bateratu eta horiek dokumentu bakar batean dagokion erakundeetan bideratu baina orain arte jaramonik egin ez zaienez, agian beste modu batean jardun beharko dutela.
- Herritarretako batek adierazi du Hondarribian autoa asko erabiltzen dela eta garraio publikoko eskaintzat erakargarria eta eraginkorra izan ezean, autobusaren erabilerak ez duela inoiz gora egingo. Ikasketa kontuengatik egiten diren Hondarribia barruko nahiz Hondarribitik beste herrietarako desplazamenduei dagokionez, ondo aztertu beharko lirateke bere ustez eskoletan puntako orduak zein diren, non sortzen diren auto pilaketak, nola informatu garaiz erabiltzaileei, etab. Horrekin batera, aipatu du, unibertsitatetik (Donostiako Ibaetan) Hondarribira bueltatzeko dagoen autobusari dagokionez, maiztasuna ordu batekoa denez, hori ezin dela garraio publiko bat denik esan (Hondarribitik Donostiarako zerbitzua, aldiz, goizeko lehen orduetan, egokiagoa da eta erabiltzaile ugari dituela aipatu du, maiztasuna handiagoa duelako). E-28 linearen maiztasuna lehen handiagoa zenez, autobusa erabiltzen zuela komentatu du baina zerbitzua murriztu zenetik, ibilbidea autoz egiten duela.
- Bilerara bertaratu den herritar batek aipatu du Donostia kalea eta Baserritar etorbidea gertu daudenez, kale bateko edo besteko geltokiak kentzearen alde egingo lukeela berak. Izan ere, bere esanetan, herritar batzuek ez baitute argi Donostia kalean dauden geltokietatik zerbitzua zein noranzkoan igarotzen den eta Baserritar etorbidean kokatutako geltokietatik zein autobus pasatzen den (bi kaleetako batetik autobusa norantza batean joan ohi da eta beste kalean, beste norantzan). Berak zirkuitua itxi bat egitea proposatzen du, zerbitzua sinplifikatzeko.
- Beste herritar batek aipatu du azken urtean autobusaren zerbitzuei dagozkion aldaketa gehiegi egon direla eta 11.000 erabiltzaile galdu izanak erakundeak erreflexionatzera bultzatu beharko lituzkeela.
- Bertaratutako herritarretako batek ibilgailu kopuruak behera egin ote duen galdetu du eta Ekialdebuseko arduradunak orain ibilgailu bat gutxiago dagoela erantzun dio. Hala ere, uda garaian zerbitzuak indartu egingo direla gaineratu du Mikel Urretabizkaiak (zerbitzua 11-12 minutuero eskaintzea lortu nahi dute).

Honenbestez, bilera 21:15etan amaitu da.